



Kaixo adiskide:

**Silo-bolak egiteko erabiltzen den plastikoaren bilketa** zerbitzuaren datak jakinarazten dizkizuegu.

Bilketa **hilean behin egingo** da (hileko 3. asteartean) eta jadanik hilabete bakoitzeko egunak izendatuta daude:

**2025 urtea**

Irailak 16  
Urriak 21  
Azaroak 18  
Abenduak 16

**2026 urtea**

Urtarrilak 20  
Otsailak 17  
Martxoak 17  
Apirilak 21  
Maiatzak 19  
Ekainak 16

Horretarako, Udalak, aurrez itxitura bat egingo du bilketa puntuetan eta **plastikoa bezperan, astelehenean, atera beharko da.**

ATAUNgo herrian bilketa puntuak ondorengoak dira:

- ⇒ Otadi Zelai baserrian, Ataungo herrirako bidean. ATAUN
- ⇒ San Martin (mediku etxe atzean). ATAUN
- ⇒ Suki zeharrean, Saltxeberri baserrirako bidegurutzean.
- ⇒ Arrateta aldean (Agerrerako bidegurutzean). ATAUN
- ⇒ San Gregorio, Intxaustiko zubian. ATAUN
- ⇒ Lauztierreka (Arratiñe bidegurutzean) eta Lauztiturrieta baserrian. ATAUN

**Oharrak:**

- Birziklatzeko arazoak ematen dituztenez, plastikozkoak ez diren sokak ez ateratzea eskatzen da; plastikozko bidoirik ere ez.
- Plastikozko sokak, beste plastikoetatik berezitu, aparte atera behar dira, BI MULTZO EGINEZ, BATEAN PLASTIKOA, BESTEAN SOKAK.
- Mineralen zakuak atera ahalko dira, denak zaku batean sartu eta muturra sokatxo batez itxita.
- Mesedez plastikoak bezperatik atera (astelehenean) eta ez beste edozein egunetan.

Argitasun gehiago nahi izanez gero, deitu GOIMENeko 943 16 12 44 telefonora edo Udaletxera bertara.

Guztion partaidetza aurrez eskertuz agurtzen gara.

Zaldibian, 2025eko irailaren 15ean